

Martuteneko jaiak

«Festarik gabe geratzeak pena handia ematen zigun»

Amaia Etxeberria (943 21 09 37)

Urriaren 12an Pilarika eguna dela eta, Martutenek auzoko festak ospatuko ditu. Urtero hainbat arazo izaten da jaiok antolatzeke. Aurten ere festak kolokan egon dira, baina aurrera egin dute jai batzorde berriari esker. Edurne Jabat festen antolaketan aritu den emakumearekin aritu gara solasean.



Argazkian Edurne Jabat eta jai batzordeko beste hainbat kide.

Zenbat zarete Jai Batzordean eta nolatan animatu zineten festen ardura hartzera?

Bi lagun aritu gara lanean, Elvire eta biok. Hala ere, auzoko neska batzuek ere lagundu gaituzte.

Jairik gabe gelditzeak pena handia ematen zigun. Batez ere, haurrengatik hartu dugu antolaketaren ardura, beraiek baitira gehien gozaten dutenak.

Zer moduz moldatu zarete egitaraua osatzera-koan?

Nahikoa ondo. Aurreko urteetako egitarauari erreparatu diogu. Auzotarrentzat ohikoak diren jarduerak

antolatzen ahalegin handia egin dugu. Zailena baimenak lortzea izan da, berandu hasi baikinena, eta estu samar ibili gara denboraz.

Diru aldetik zer moduz? auzoak lagundu al du?

Bai. Diru-laguntzak jaso ditugu eta egitarauak banatzerakoan borondatea eskatu dugu. Auzoak ongi erantzun du eta badirudi auzotarrek

“Batik bat haurrengatik hartu dugu jaion ardura”

gogoz hartuko dituztela jaiak. Ezer berririk eskeintzen al du egitarauak?

Sagardo botilak salgai urte osoan

BARKAIZTEGI

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Barkaiztegi Pasealekua • MARTUTENE • TEL.: (943) 451304 ETA (943) 455501

Martutene auzoa 71
20014 DONOSTIA
Tel.: (943) 45 19 97

TXOFRE
SUMINISTROS INDUSTRIALES, S.A.L.

- Berezitasuna: torlojugintza herdoilezina
- Tresneria oro har
- Banatzaileak: Gayner Hitachi Super Ego

Biltegia eta bulegoak:
Ubarburu pasealekua 9 - 27. poligonoa
Tfnok.: (943) 466394 eta (943) 462374
Faxa: (943) 464521
20014 DONOSTIA

TXOKO-BERRI

TABERNA

Festak ondo igaro!

Berezitasunak:
Olagarroa olio-ozpinetan
Pintxo aukera zabala

Pilarreko taldea 29, MARTUTENE • Tfnok.: 943-45.23.29

Edaritegia

TRINKETE

Bai. Lehenengo aldiz haurrentzat herri kirolak eta eta txekor eta pottoken erakusketak egingo da. Txekor eta pottoken erakusketa, ez da erakusketa hutsa izango, haurrek pottoketan ibiltzeko aukera ere izango baitute.

Egitarauan sorpresa bat baino gehiago egongo direla iragarri da. Zerbait aurreratzerik bai?

Sorpresak sorpresak dira, baina bat behintzat aurreratuko dizuet: zezen mekanikoa ipiniko da egun batean. Bestelakoak antzekoak izango dira edo agian hobek... nork daki!

Feriak eta txosnak egongo al dira?

Bai. Feriak gasolindegiko ondoko lautadan egongo dira. Txosnak parkean ezarriko dira, urtero bezala bi izango dira: AABrena eta auzoko danborradarena.

Egitarautik zer nabarmenduko zenuke?

Pilarika egunean egingo den sagardo eta nekazaritza produktuen azoka. Niri behintzat gehien gustatzen zaidana da, oso giro polita egoten da. Denok gonbidatuta zaudete.

EGITARRAUA

Asteazkena 11

- 16.00 Dardo txapelketa, Tranvian
- 16.00 Argazki Rallya
- 19.00 Txupinazoa, buruhandi eta txistulariekin
- 21.30 Koadrilen afaria Trinketean
- 23.00 Dantzaldia parkean Izótz taldearekin

Osteguna 12

- 08.30 Diana txistulariekin
- 09.00 Herri Krosa Senior eta Beterano mailetan
- 11.30 Auzoko hildako guttien omenezko elizkizuna, Pilarreko kolonian
- 12.30 Sagardo Eguna eta nekazaritza produktuen azoka
- 12.30 Bakailao txapelketa
- 16.30 XI. Toka Txapelketa
- 19.00 Nafarroako jotak Aupa Navarra taldearen eskutik

Ostirala 13, Haurren eguna

- 10.00 Txokolate jana. Ondoren, txanel txangoa Urumean barrena



- 11.00 Magia saioa Txan Handiarekin, parkean
- 16.30 Herri kirolak haurrentzat
- 18.00 Auzoko gaztetxoaren futbol ligaska
- 19.00 Buruhandiak eta erraldoiak txistulariekin
- 23.00 Dantzaldia Avenida orkestrarekin

Larunbata 14

- 10.00 etatik 12.00 tara jolasak parkean
- 10.00 Futbol txapelketako finalak
- 10.00 Cava txapelketa
- 12.00 Pailazoak
- 16.00 IX. Mus Txapelketa

- 17.00 Boleibol finala Arantzazuko Ama Ikastolan
- 17.00 Txekor eta pottoken erakusketa
- 19.30 Buruhandiak eta erraldoiak
- 23.00 Dantzaldia Urgabe taldearekin

Igandea 15

- 09.00 Diana txistulariekin
- 12.00 Herri kirolak parkean
- 16.00 Dardo txapelketaren finala, Tranvian
- 17.30 Areto dantza erakustaldia, parkean
- 20.00 Txaranga
- 22.30 Botila erreketeta eta jaien amaiera



MARTUTENeko BH INSTITUTUA

HEZIKETA JARRAIA, LANGILEENTZAT IKASTAROAK

FABRIKAZIO MEKANIKOKO ARLOA

Ikastaroaren izena	Orduak	Datak	Ikastaroaren izena	Orduak	Datak
1.-ZK Fresagailuan Programazioa	50	00/10/2-26	6.-Harizko elktro-higadura	40	00/12/1-22
2.-Automatak	40	00/10/9-31	7.-CAD.Unigraphics.3D diseinua	45	00/11/13-30
3.-ZK Tornuan programazioa	40	00/11/6-30	8.-Fabrik. Mekn. Lantok. Segurtasuna	40	00/10/9-27
4.-ZK Fresagailuan lanketa eta prog.	55	00/11/6-30	9.-Fresagailuan prozesu exekuzioa	40	00/12/11-29
5.- Hidraulika	40	00/11/6-24	10.-Tornuan Prozesu exekuzioa	40	00/10/2-20

Tel.: 943453655-943453711
Faxa: 943470636
e mail: martutenekobhi@jet.es




EUROPAR
GIZARTE
FONDOA



HOBETUZ

Pilarikaren erritmora

Pilarikak gainean ditugu, beraz, auzotarrak kalera ateratzeko gogo bizian daude, izan ere, datozen egunotan giro aparta izango da Martutenen. Egingo diren jarduerak egunerokoa apurtuko dute, ondo apurtu gainera. Argazki rallya, herri krosa, nafarroako jotak, bakailao txapelketa... ez da ohikoa egunero horrelakorik ikustea. Denetarik izango da. Ezin guztia, ordea, hemen bildu.



Txan Handiaren magia

Txan Handia magoa ere izango da Martutene-ko jaietan. Urriaren 13an auzoratuko zaigu gero eta ospe handiagoa duen mago hori. Azken boladan "Barre busa" telebista saioan dabil Txan. Ez dugu zalantzarik, haurrak zein helduak zur eta lur utziko ditu.

Sagardo Eguna

Pilarika egunean egingo den azokan inguruetako sagardotegietako sagardoa dastatu eta gure lurrak ematen dituen produktuak erosteko aukera izango dugu. Barkaiztegi, Garziategi, Lizeaga, Petritegi, Astarbe, Rezola, Otsua Enea, Bereziartua eta Egiluze sagardotegiek eta Antxume, Olatxo, Okendotegi, eta Agirretxe baserriek parte hartuko dute azokan. Beraz, tokian tokikoa salgai eta dastagai.



Areto dantza erakustaldia

Lehengo urtean bezalaxe, aurten ere areto dantzen erakustaldia izango da. Martuteneko Mertxe eskolako irakasle eta ikasleak ariko dira taula gainean. Antza denez, dantza emanaldiak ospe handia du. Jendea aho zabalik geratzen omen da auzoko gazteek dantzarako duten gaitasunarekin. Igandean izango da, arratsaldeko 17.30etan.

Hamaika erretratu

Asteazkenean Argazki Rallya hasiko da. Gaztelekuak antolatzen du, eta 14 eta 18 urte bitarteko gaztetxoei zuzendua dago. Argazki kamarak banatuko dira eta gaztetxoen jaietako argazkiak atera beharko dituzte. Argazki kamarak astelehenean jasoko dira gaztelekuetan. Argazki onenak saria jasoko du. Kontuz ibili, argazkietan ateratzea gogoko ez baduzu!



EROSLE MARTUTENE

SUPERMERKATUA

Ibaialde 1 • Tel: (943) 46 61 64



- Ikastetxe eta lantegientzako zerbitzu bereziak
- Era guztiako bidaiak, baita atzerrira ere
- Komuna eta literadun autobusak

Tel.: (943) 46 96 98
Tel.: (943) 46 82 77

AVTOCARES

VLOA

MARCOS



OKINDEGIA ETA ETXEKO GOZOAK

Ubarburu P., 4-5 pabiloiak • 27 Industrialdea
- Tel: (943) 45 09 66 • ASTIGARRAGA